

Berrigara



Zaborrarekin, zer?

Debagoieneko zaborraren %16 birziklatzen da

RENAULT

MECA

BERGARA

Erakusketa eta tailer

Amillaga 5

BERGARA

Tf. 943 76 40 68

Olio aldaketa*

ELF TS 15W40

2.995 pezetatik
aurrera

18,01 €

*3,5 litroa
arteko
ibilgailuetan

Doan, 25 punturen begizko azterketa operazio bakoitzeko
RENAULT ZERBITZUAK. Gelditu ez zaitezzen mugitzen gara.



deco-tex ZANGUITU alfonbrak



Alfonbrak • Edredoiaik
Funda nordikoak • Kortinak
Toailak • Izarak



**Alfonbrak
neurria!**

Herri lagunak 4.
Tf. 943 76 08 69



fordfocus TDdi
2.070.000
pezetatik
aurrera



Mondeo
berria

**laster
harrituko
zaitu**



BERRIA GARAJEA

Amillaga 49, Bergara. 943 76 22 43 / 24 43, 617 081 189



Iñigo Urrutia / Kazetaria

Pobrezia eta etorkizuna

Euskal familien ehuneko bosta pobrezian bizi da, ELAk eginiko inkestaren arabera. Langabezia jaisten joan den neurrian, pentsatu ohi dugu guztion egoera ekonomikoa onera joango zela. Baina tira, behi lodien garaian zein krisi zorrotzetan beti gelditzen zaigu gizartearen atal bat joko zkanpo. Demagun, -zabor kontratuak existitu ez balira bezala- langabeziaren bilakaera gero eta hobeagoa dela; gehiago oraindik, jarri gaitezen "esku-zabal" eta esan dezagun hor nonbait dirurik gabeko 75.000 hiritar horiek, edozein gizartetan dagoen portzentaia teknikoa osatzen dutela. Azken finean, desberdintasun sozialak gizartearen (ereduaren?) muinean datzabela. Pentsamolde neoliberalak buruak kutsatzen erregea baitugu.

Bestetik, egoera ekonomikoa ontzat emanez, akaso iritsi zaigu gure buruari beste mota bateko galderak egiteko garaia. Adibidez, zein ote den familien ondasunik haundiena; familia bera

noski. Baina familiak, apurtzen ez direnean, gutxitzen doaz; bikoteak, hirukoteak, laukoteak eta hemendik aurrera, salbuespenak. Oraintsu arte, familiak sostengatzen zituen etxekoen garai txarrak: semearen langabezia, aiton-amo-

nen zahartzaroa, etabar. Baina, taldea murrizten den heinean, irtenbide horiek desagertu egiten dira: semerik ez badaukat, zahartzaroan (gero eta luzeagoa), nor arduratuko da nitaz etxean inor ez badago?

"Langabezia jaisten joan den neurrian, pentsatu ohi dugu guztion egoera ekonomikoa onera joango zela.

Baina tira, behi lodien garaian zein krisi zorrotzetan beti gelditzen zaigu gizartearen atal bat joko zkanpo"

Etorkizunak erresidentzia (dirua izanez gero) eta bakardadearen itxura dauka. Nork lagunduko dit langabezia gelditzen banaiz 50 urtekin? Ingurura begirada eta inor ez. Pobrezia mota berriak dauzkagu, batzuk ikusezinezkoak dira, baina hor diraute. Neoliberalak jarraitu ezker, bakoitzak egindako merezimenduen (testuingurua ez da existitzen, bizitza arau gabeko lasterke-ta besterik ez da) arabera jasoko du.

Horregatik behar beharrezkoa deritzogu, pentsamolde hau bazterten joatea, bere gezurak azaleraztea eta, aintzinakoa badirudi ere, Ongizate Estatu berraldarrikatzea. Bestela, darماغun martxarekin, gizartearen helmuga jungla bat izango da.<


barruan



Jon Mendizabal
CDR-Solozabaleko txirindularia

"Gure taldean guztiok daukagu gure maila demostratzeko aukera; hori eskertzekoa da"

19.



J. Andoni Urisabel
Pintorea

"Galdera ikurra, mundua eta zerebroa erakutsi ditut San Joxepeko kartelean"

22.



Edurne Peña
Kiroldegiko tabernaria

"Nahikua diru eduki ezker, zuluak tapau eta biharra daukanari lagunduko notsake"

25.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK
Kooperazioa. Eusko Jaurlaritza. Laguntzak lankide profesional zein bolondresentzat. Epea: urriak 30.
Italian eta Israelen ikasteko bekak. Atzerriko Gaietarako Ministerioa. 2001/02 ikasturtean eta 2001eko udan. Lizentziatuak nahiz karrerako azken urteko ikasleak. Epea: urriak 27.
Euskara eta katalanaren ikaskuntza. Eusko Ikaskuntza, Institut d'Estudis Catalans. 1989 eta 2000 artean lizentziatu edo graduatuak. Epea: abenduak 15.

IKASTAROAK
Kontadores eta Martutene. Donostiako Udala. Ikastaro ugari bi Gaztelekuetan: antzerkia, makillajea, gidioak, ipuin kontaketa, argazkigintza, magia... Epea: urriaren 18ra bitartean edo lekua egon arte.

JARDUERAK
Udazken kulturala. Bergarako Udala. Antzerki, kontzertu, dantza ikuskizun... Epea: jardueraren arabera.
Getxoko XVIII Antzerki Jardunaldia. Getxoko kultura aretoa. Epea: urriak 11-22.
Emakumeak: izanak eta izateak. Arrasateko Udala (Sexologia Zerbitzua). Mahainguruak, komunikazioak, antzerki. Azaroak 4.

SARIK
Logotipo lehiaketa Debabarrena eta Debagoieneko euskaltzaleen elkartearen logotipoa. Epea: urriaren 18a.

LAN ESKAINTZAK
Delineatzailea. Zamudioko Udala. Delineatzaile titulua. Euskara. Zamudioko Udala. Epea: urriak 17.
Ingurugiro teknikaria. Deba Garaiko Mankomunitatea. Industria teknikari ingeneritza edo Zientzia Kimikoetan teknikaria. Epea: urriak 26.
Arkitekto teknikoa. Bilbao kirolak. Arkitekto tekniko edo aparejadore titulua. Epea: urriak 20.

KARNETAK
 Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:
 BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
 Telefonoa: 943 77 91 57
 E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
 Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
 Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoiei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

San Juan auzoan

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Irailak 5, eguena	16 °C	14 °C	2,2 l/m ²
Irailak 6, eguakitza	17 °C	11 °C	—
Irailak 7, zapatua	20 °C	7 °C	—
Irailak 8, domeka	21 °C	4 °C	1,8 l/m ²
Irailak 9, astelehena	20 °C	13 °C	12,3 l/m ²

jaiotakoak

BERGARA

Mireia Osuna Castro

Irailak 30

Farmaziak

Eguaztena 11:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

Eguena 12:

CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

Eguakitza 13:

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

Zapatua 14:

GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

Domeka 15:

GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

Astelehena 16:

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

Martitzena 17:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

Eguaztena 18:

CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

Eguena 19:

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

Ogia

Eguena 12: Konde.

Domeka 15: Mizpildi.

hildakoak

BERGARA

Felipe Belastegi Loidi

Urriak 7, 88 urte

Maria Lopez Repiso

Urriak 7, 86 urte

Iñaki Aldazabal Muguruza

Urriak 7, 66 urte

ANTZUOLA

Juana Cot Luna

Urriak 5, 78 urte

zorion agurrak



Aitor Murillo
 15ean 9 urte.
 Urte askotarako!
 Gurasoak eta Iker.



Arantxa Iraegi
 13an 39 urte.
 Urte askotarako!
 Hodei, Aitzol, Olaia eta Aitor.



Aitor Sansiñena
 14an urtebete.
 Urte askotarako!
 Etxekoak, aitita eta amama.



Kepa Sansiñena
 18an 4 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak, aitita eta amama.



Igoitz Retes
 15ean 8 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Olatz Muruamendariz
 18an urtebete.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Julen Markez
 13an 6. Urte askotarako!
 Familiakoak eta Elisa, Mikel eta Gorka.



Julen Unzueta
 14an 8 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Maitane Larrañaga
 17an 3 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Aitzol Gandiaga
 15ean 8 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Eider Uzin
 18an urtebetetzea.
 Urte askotarako!
 Familiakoak eta Aritz.



Maria Teresa Azkarate-Askasua
 13an urtebetetzea.
 Urte askotarako!
 Familiakoak.



Maitane Arteaga
 19an 7 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Olatz Larrañaga
 19an 14 urte.
 Urte askotarako!
 Ama.



Iñaki Olabarria
 18an urtebete.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Iker Azagirre
 14an 16 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Jone Amasorain
 17an 10 urte.
 Urte askotarako!
 Nerea eta familia.

Hurrengo alean, urriaren 20tik 26ra bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu.

URTEURRENA

Luis
Martinez Estevez

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 15,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Gloria
Sanchez Ramirez

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 15,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jose Ignacio
Amasorrain Usabiaga

“Xasio”

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 15,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Esteban
Quintana Angulo

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 15,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Ines Larrañaga Zabaleta
Santos Baskaranen alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 15,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Margarita Ostiz Albisua
Ramon Mujikaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 15,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Josefa Etxezarreta Aranzadi
Inazio Beistegiren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 15,
eguerdiko 12:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Iñaki Aldazabal Muguruza
Maria Angeles Gonzalez Beitiaren alarguna

Bergaran hil zen
2000ko urriaren 7an,
66 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

MUSIKA

► **Paparazzi** ska taldea eguakitzean, hilak 13, 22:30ean Elgetako Gaztetxean.

ERAKUSKETAK

► **Gipuzkoako zuhaitzen eta zuhaixken herbarioaren erakusketa** urriaren 15era arte Kultura Etxean.

LEHIKETAK

► **Antzuolako Udaletxean fresko-mural bat pintatzeko lehiaketa.** Obraren motiboak Antzuolako herriarekin lotuta egon beharko du. Partehartzaileek egin beharreko lanaren proiektua aurkeztu beharko dute. Edozein prozedura eta tamaina onartzen da. Lanari buruzko azalpen-txostena gaineratu ahal izango da. Epaimahaiak 500.000 pezetako sari bakarra emango du. Lanak entregatzeko epea abenduaren 11n bukatuko da. Argibideak Antzuolako Udaletxean, 943 76 62 46 zenbakian.

► **Soraluzeko bertso paper lehiaketa.** Bi maila bereiztuko dira: 16 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak. Lanak aurkezteko epea urriaren 20ra arte zabalik. 943 75 13 04.

► **Jokin Zaitegi XIV. Itzulpen Laburren sariketa.** Arrasateko AED elkarteak deituta. Aurtengo gaia "Ura"

ERAKUSKETA


Luis Etxeberria

- Olioak eta sorginak
- Nahikari tabernan
- Urriaren bukaerara arte

Luis Etxeberria bergarar presoaren erakusketa ikusgai izango da Nahikari tabernan urriaren bukaerara arte. Etxeberriak orain dela bi urte ekin zion margotzeari, bere kabuz, eta hauxe dugu bere lehenbiziko erakusketa; "nik egindako koadroak beste pertsona batzurekin konpartitzea nahi nuen, eta hortik sortu zen erakusketa egiteko aukera". Martuteneko espetxeko keramika tailerrean parte hartzeaz gain, bere ziegan margotzeko ohitura dauka; "motibazioaren edo inspirazioaren arabera, sasoi batzuetan etengabe margotzen dut eta beste batzuetan, aldiz, ez dut pintzela ikutu ere egiten".

Nahikariko erakusketan 14 olio eta keramikazko hiru sorgin erakusten ditu. Olioak 1998ko abuztua eta aurtengo udaberria bitartean landutakoak dira, Cordoba, Burgos

eta Martuteneko espetxeetan hain zuzen ere. Margotzeko orduan Euskal Herriarekin zerikusia duten gaiak interesatzen zaizkio batik bat eta Nahikarin zintzilikatutako lanetarako paisaiak, baserriak edo jaiak hartu ditu inspirazio iturri gisa. Bere hitzetan, "alde batetik Euskal Herria maite dudalako eta, bestetik, kartzelan nagoenetik, mendiko paisaia irekiak direlako gehien faltan botatzen ditudanak". Sorginei dagokienez, beti ere interesgarriak eta atseginak iruditu zaizkio. Gaur egun, keramika lanak egiten ditu nagusiki: trikuharrak, argizaiolak, sorginak, argizari-lanparak... "Lehen, aukera nuenean, egurrezko taila ere egiten nuen, albokak eta bestelakoak; materialei dagokienez, egurra, larrua eta beste hainbat erabili izan dituzten urteetan".



Luis Etxeberriaren olioetako bat.

izango da. Irabazleak 200.000 pezetako saria jasoko du eta 2. saria 100.000 pezetakoa izango da. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da. 943 77 12 28.

► **"Aretxarte" Aretxabale-tako merkatarien elkarte-**

ren anagrama aukeratzeko logotipo lehiaketa. DIN-A4 formatoan, teknika librea erabili ahal izango da. Irabazleak 30.000 pezetako saria izango du. Lanak Zubia oinetako dendara (Mitarte 14, 20550 Aretxabaleta) bidali beharko dira urriaren 30a baino lehen.

IKASTAROAK

► **Udaleko Gizarte Ongizate sailak 18 urtetik gorakoentzako bi ikastaro jarriko ditu martxan: mekanika eta elektrizitatea, batetik, eta diseinu eta patroigintza, bestetik. Argibideak**

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

943 76 91 24 edo 943 76 91 25
zenbakietan.

urriak 18, 18:30ean,
Seminarioran.

OHARRAK

► **Trasteak** biltzeko kamioia hileko lehen eta hirugarren eguaztenetan pasatzen da. Beraz, trasteak goizeko 8ak baino lehen atera beharko dira zabor guneetara. Erdigunetik kanpoko auzokoek, bezperan eguerdiko ordubata baino lehen abisua utzi behar dute Udaltzaingoan (943 77 91 06) kamioia bertatik pasatzeko.

KINTADAK

► **1962**an jaiotako enafaria urriaren 21ean Erreki jatetxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, Frontoian elkartuko dira. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Errekin bertan urriaren 18a baino lehen.

► **1947**an jaiotako enafaria urriaren 21ean Txuringon. Izen-ematea (6.500 pezetako) Euskadiko Kutxan urriaren 14a baino lehen. Osintxura joateko autobusa izango da, 20:30ean Santa Marina ondoan.

► **1978**an jaio eta Mariaren Lagundian euskarazko taldean elkarrekin ibilitako enafaria urriaren 28an. Izen-ematea urriaren 20ra Arrano tabernan.

► **1955**ean jaiotako enafaria Azpeitxi jatetxean urriaren 28an. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Azpeitxin.

► **Arrasateko Udaleko emakume sailak** hainbat ikastaro antolatu ditu abendura bitartean: lan orientabide ikastaroa, hazkunde pertsonala, literatura eta hezkidetzak ikastaroa. 943 79 41 39.

► **Mendi irteera** nagusien-tzat Erlora, urriaren 22an, 7:30ean Frontoitik. Txartelak Pol-Pol tabernan.

► **Begirale ikastaroa** (maiztera bitarteko zapatuetan) eta keramikako hastapen ikastaroa (urriaren 24tik urtarrilaren 23ra) Arrasaten. Argibideak: 943 79 54 46.

► **Pintura ikastaroak:** teknika eta gai ezberdinen arteko esperimentazioa. Hainbat ordu-tegi aukeran. Argibideak eta izen-ematea: 943 76 44 17 edo 696 577 495 (Usoa). Bestalde, haurrentzako pintura eta marrazketa ikastaroak, 5-14 urte bitartekoendako, zapatuetan 10:00etatik 13:00etara. Argibideak: 943 76 34 48 (Mayra) edo 696 577 945 (Usoa).

DEIAK

► **Bedelkarrek** antolatutako hitzaldiak: urriaren 17an eta 18an "Bezeroarenganako arreta", 14:15ean Kultura Etxean.

► **Odol ateraldiak** egingo dira datorren eguaztenean,

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Frequency

Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.

El hombre sin sombra

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

A cualquier otro lugar

Eguena, hilak 19, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Romeo debe morir

Eguena: 17:00, 19:30, 22:00.

Eguakitza: 19:00, 22:00.

U-571

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

X-men

Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.

Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Shatft

Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.

Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Buena Vista Social Club

Eguena: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Holy smoke

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

OÑATI. Santana

La tormenta perfecta

Eguena: 19:30, 22:30.

Eguakitza eta zapatua: 22:30.

60 segundos

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

FREQUENCY

Zuzendaria: Gregory Hoblit.

Aktoreak: Dennis Quaid,

Jim Caviezel, Andre Braugher.

▲ 13 URTE

Gure bizitzako gertakirien bat aldatzeko aukera edukiz gero, *John Sullivan* (Jim Caviezel) poliziak 1969. urtera atzera egingo luke, *Frank* (Dennis Quaid) bere aitaren heriotza saihesteko. Suhiltzailea zela, istripu batean hil zen.

EL HOMBRE SIN SOMBRA

Zuzendaria: Paul Verhoeven.

Aktoreak: Kevin Bacon,

Elisabeth Shue. ▲ 13 URTE

Paul Verhoeven zuzendari hollandarrak (*Instinto basico*) gizon ikusinezinari buruzko filmea errodatu du oraingoan. *Sebastian Cane* izeneko zientzilaria ospetsua (Kevin Bacon) ikusezintasuna aztertzen ari da, animaliekin esperimentuak eginez. Azkenean bere buruarekin ere esperimentatu du...

A CUALQUIER OTRO LUGAR

Zuzendaria: Wayne Wang.

Aktoreak: Susan Sarandon, Natalie Portman, Bonnie Bedelia.

▲ 13 URTE

Mona Simpson-en nobelan oinarrituta, Wayne Wang zuzendariak izen handiko bi aktore-sen partaidetza izan du: Susan Sarandon eta Natalie Portman, ama-alabaren paperean. Amak, ustez, badaki zer den egokiena bere alabarentzat, baina honek bere amaren beharrik ez duela uste du.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Ugarrixa merenderoa

Elosuko
bidean

BERGARA
943 76 28 92



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

Elosuko XXI. Mendiko Ganadu Feria egingo da eguenean

Aurten joan-etorriko autobusak jarri dituzte antolatzaileek

Elosuko XXI. Mendiko Ganadu Feria egingo da eguenean, hilak 12. FERIA goizeko 9:00etan hasiko da, eta Bergara eta inguruko ganadua ikusteko aukera izango da. Bestalde, autobusak egongo dira Elosura igo zein jaisteko.

Dagoeneko prest dago, eguenean Elosun egingo den XXI. Mendiko Ganadu Feriako egitaraua. Goizeko 9:00etan hasiko da, eta bertan ganadua nagusi izango den arren, artisauak, musikariak, talogileak eta beste-lako salmenta postuak ere egongo dira frontoi pareko zabalgunean eta beheko zelaietan.

Eguerdian, 13:00ean, ganadu lehiaketako sariak banatuko dira. Goiz partean ganadua eta salmenta postuak ferriko ardatz nagusia izango diren bezala, arratsaldean herri kirolen jaialdiak hartuko du lekukoa.



Goizean, ganadu feria izango da nagusi, eta arratsaldean, herri kirolak.

ARTXIBOA

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da jaialdia eta aizkolariak eta harrijasotzaileak ikusteko aukera egongo da. Aizkorarekin Mindegia eta Olasagasti arituko dira eta harrijasotzen Goenatxo II.a eta Elosu-Korta.

IGO ETA JAISTEKO AUTOBUSA

Urtero sortzen diren auto andanak ekiditeko asmoz, antolatzaileek, Elosuko Elurtxiki elkarteko kideek, autobusa antolatu dute aurten kaletik Elosura igotzeko

eta baita jaisteko ere. Elosurako lehenengo autobusa goizeko 10:00etan aterako da San Martin plazatik, eta jaisteko azkena arratsaldeko 19:00etan Santutxutik. Joan-etorriko txartelak 400 pezetan balio du.

Justizia euskalduntzeko plataforma

AEK, EHE eta Jardun

Euskara elkarteak sortu berri dute. Taldeon esanetan, Bergarako epaitegiak eta orohar Euskal Herri osoan justizia administrazioak ez ditu errespetatzen euskaldunen hizkuntza eskubideak. Egoera horri buelta emateko asmoz sortu da, eta euskararen normalkuntzarako bidean adostutako zazpi oinarrien gainean:

bat, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza ofiziala da; bi, justizia administrazioa herritarren eskubideak bermatuko dituen zerbitzu publikoa da; hiru, justizia administrazioak herritarrok hautaturiko hizkuntza bermatu behar du, eta eginpide guztiak hizkuntza horretan burutzea ere bai; lau, itzulpena ez da bidea, izan ere, modu sistematikoan erabil-

tzea berdintasun printzipioaren aurka doa; bost, funtzio publikorako euskara derrigorrezko hizkuntza izatea; sei, irtenbideak bermatzea; eta zazpi, hizkuntza eskubideak ezagutzera ematea.

Oinarriok betearazteko, adostasuna lortu nahi du plataformak herriko beste talde batzuekin. Ostean, lan ildoak markatuko dituzte.

Luis Porteroren atentatua salatzen kontzentrazioa

Atzo, martitzena, 12:00etan, berrogeita hamar lagun inguru kontzentratu ziren San Martin plazan. Arrazoia, ETAk astelehenean hildako Luis Portero Andaluziako Auzitegi Nagusiko fiskalburuaren heriotza salatzea izan zen.

Beasain-Durangok bailaran duen garrantzia azpimarratu du EHk

Joxean Alustiza EHko biltzarkideak, Juan Jose Azkarate Antzuolako EHko zinegotziak, eta Aitor Aranzabal Bergarako EHko zinegotziak Beasain-Durango korredoreak bailararako duen garrantzia azpimarratu zuten prentsaurrean astelehenean.

Bergarako hego sahiesbidea deritzona, Beasain-Durango korredorearen zati-tietako bat, onartuta dago eta obrak aurten hasiko direla aurreikusita. Proiektuak hainbat aldaketa izan ditu eta baita atzerapenak ere: hasierako proiektuan autobia gisa aurreikusi bazen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak errepide normal gisa planteatu du azkenik. Beraz, Zumarraga eta Bergara arteko errepide zatia bi karriletakoa izango da.



Aitor Aranzabal, Joxean Alustiza eta Juan Jose Azkarate astelehenean.

Hau guztia kontuan hartuta, Gipuzkoako EHrentzat, "borondate falta handia azaldu du Diputazioak errepide honi dagokionez", eta horren arrazoia "Maltzaga-Urbina super-autobide transeuroparraren eraikuntza da". EHrentzat, arrazonamendu oso sinplea dago Bergara-Zumarraga autobia

ez egiteko: "Maltzaga-Urbina peajea ordaindu behar-luketen ibilgailuak Zumarragatik joango direla. Hori da Bergara-Zumarraga bi karriletakoa egiteko arrazoia". Horrela, "Diputazioak bailararako trafikoari soluziorik emango ez dion autobidearen alde egin du, benetakoa beharren gainetik".

GARRANTZIAREN ARRAZOIAK

Hiru arrazoi nagusi daude EHren ustez Beasain-Durangoren garrantzia azpimarratzeko: batetik, Goierri, Urola Garaia eta Debagoienak komunikazio zuzena izan behar dutela eta duten trafikoari egokitua. Bestetik, Gipuzkoako bailarak elkarrekin komunikatzeko errepideak guztiz alboratuta utzi dituztela EA, EAJ eta PSOEk. Azkenik, Beasain-Durangok Euskal Herriko N1 errepidearen zatia izan behar duela.


EHk Debagoiena eta Urolako udaletan moztioak aurkeztuko ditu Beasain-Durangoren lanak azkartzeko batetik, eta Zumarraga-Bergara eta Bergarako hego sahiesbidea lau karriletakoa izan dadin bestetik.

A-1 autobideko azken tunela zulatzen hasi dira

Roman Sudupe Diputatu nagusia eta Antton Jaime Garraio eta Errepideetako Foru Diputatu Bergaran izan ziren joan zen eguakitzean Gasteiz-Eibar autobideko lanak ikusten.

Bergarako Iparraldean, Amillagan, hasi eta Eibar arte luzatuko den autobide zatiari dagozkio lan horiek. Bi fasetan banatu dira lanak: orain egiten ari direnak, A faseari dagozkio, Bergaratik Sorluzerainoko zatiari hain zuzen ere. B fasean, Sorluzetik Eibarrerainoko autobide zatia eraikiko da.

A fase horretan, autobidearen enborrak 4,8 kilo-



Lezarriko bi tunelak eta Gallastegiko bat guztiz zultuta daude.

ARTXIBOA

metro ditu, eta lau tunel: Lezarriko tunelak Bergaran eta Gallastegiko tunelak Sorluzen. Lezarriko bi tuneletako bakoitzak, 1.220 metro ditu eta guztiz zulatuta dau-

de dagoeneko. Uztailaren 10ean amaitu zituzten.

Gallastegiko bakoitzak 2.370 metro ditu, eta irailaren 13an hasi ziren lehenengo zulatzen. Eguakitzean,

Roman Sudupe Diputatu Nagusiak, bigarren tunela zulatatzeko lehenengo dinamita karga estandarazi zuen. Gallastegiko tunel hauek, Gipuzkoan dauden tunelik luzeenetakoak izango dira. Arlabanen eraikiko den tunela soilik izango da luzeagoa. A1 autobidean aurreikusi direnatik luzeenak dira Gallategi eta Arlabango tunelak.

Lanen aurrekontua guztira, 9.800 milioi pezetakoa da. Lanak 1999ko maiatzaren 15ean hasi ziren eta 2001eko azaroaren 15erako amaituko direla aurreikusi da. Une honetan, obraren %55 egina dago.

Berrigara

425 zenbakia.
2000ko urriaren 11.

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.
20570 Bergara.

Telefonoa: 943 76 03 97

Faxa: 943 76 29 77

Posta elektronikoa:

berrigara@topagunea.com

Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.

Erredakzioa: Monika Belastegi,

Aintzane Irizar, Edu Mendibil.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa: Iban Arantzabal.

Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,

M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien,

Estepan Plazaola.

Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,

Usoa Mendikute, Gorka Ortega &

Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.

Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,

Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,

Juan Martin Elepuru, Josu Okina.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. Elk.

(Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldezkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

GORLAKO KANTINA DELA ETA

Egunero Gorlara joaten garenok kantina barik gertu gara. Ez dakigu zehatz-mehatz zeintzuk izan diren kantina berria ixteko arrazoiak baina arazoa lehenbailehen konpondu beharra dagoela ikusten dugu, mendizaleok zertxobait jan eta edateko toki aproposa izan dezagun Gorla inguruan. Urtetan izan dugu kantina zabalik Gorlan eta kantina barik geratzean lagunekin eta mendizaleekin elkartzeko lekua galdu dugu.


Berrigaran irakurritakoaren arabera, kantina zaharra botako da laister. Kantina berria egin zenerako zaharra botata egon behar zela

ere irakurri dugu. Zer dela eta hartu zen erabaki hori? Azken urteetan biak batera zabalik izan dira eta badirudi ez dela inolako arazorik izan. Kantina zaharrak bertan egoteko baimenik ez bazuen, zergatik ez zaio horri irtenbidea lehenago topatu, kantina berria orain dela lau urtetik zabalik badago? Orain bertara joaten garenok jasan behar dugu arazoa. Udalari kantinaren arazoari konponbide azkarra topatzea eskatzen diogu. Antza denez, Belatz kantina berria adjudikatzeko deitutako lehiaketara ez zen eskaririk aurkeztu. Kezkatzeko modukoa da hori. Zer gertatuko da hurrengo deialdian beste horrenbeste gertatzen bada?

Kantinaren premia nabaria da eta zabalik egon beharko litzateke urte gutxian. Gainera, Elosuko feriatan eguna hurbiltzen dela eta, pena da kantina itxita egotea. Beste urte batzuetan giro ezinhobeia izan da egun horretan kantinan, eta aurten, berriz, itxita izango dugu. Udalari hori guztia kontuan hartzea eta baldintza pleguetan erreztasunik ematea eskatuko genioke, kantina baldintza onenetan ahalik eta azkarren zabalik izan dezagun. Gure eskaria kontuan hartuko delakoan, agur t' erdi.

J. Inarra
(eta beste sei sinadura
gebiago)

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



atrebentzia ezpada

Zentsura mozioa eztabaidagai izan da. Lehendakarixak hauteskundiak aurreratatu biharko littuzke?


Reyes Alberdi

Ez jat ondo pentsatzen. Hauteskundiak aurreratuz gero, espainolisten alde egittia izango litzake. Egoeria ez litzake aldatuko.


Maite Olabarria

Ez nago hauteskundiak aurreraziaren alde. Daukagun lehendakarixa ondo ikusten dot. Hauteskundiak egittia ez dot lojikoia ikusten.


Juan Mari Vicente

Ez da biharrezkua, egoeria ez litzakeelako aldatuko. Ez dot uste hauteskundiak aurreratziak ezer soluzionauko leukenik.


Conchi Baena

Nere ustez, ez littuzke hauteskundiak konbokatu bihar. Ni behintzat oingo egoerarekin gustora nago.


Edu Agirre

Igual bai. Badirudi oingo egoerakin ez goiazela inora eta gauzak argitzeko baliogarria izan leike hauteskundiak aurreratzia.


Maribel Carazo

Beharbada bai. Gauzak zertxobait aldatu leizke. Jendiak bere iritzixa eman daixela eta ia aurrera egitten dogun...

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

GOITB TELEBISTA ETA BERGARA

Jose Agirrek deitu zuen joan zen astean GOITBko emisioei buruz galdezka. BERRIGARAN irakurri zuenez, Goiena Telebista Bergarako etxe batzutan ikusten da bakarrrik eta Udalari horren arrazoiak zeintzuk diren galdetu nahi dio Josek. Bere koadrilan badira GOITB ikusten dutenak, baina gehienek arazoak dituzte euren etxeetan seinalea ondo hartzeko. Joseri, bailara lotzeko komunikabide aproposa iruditzen zaio GOITB eta beraz Udalari proiektu hori onartzea eskatu nahi dio, herritarren onerako izango delakoan. Bailaran sortzen diren albisteak eta bestelako programak, bertako euskarazko telebista kate batek lantzea guztiz erakargarria dela uste du Josek.

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

LONBIDE ONETAKOAK

 Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57



Aldi bi

 Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65

 Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK



OGIZUN

 koop. elk.
okindegia

 San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Mujika

 gozologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekaleara 3 BERGARA 943 76 10 34

adituen esanetan

Kontserbako elikagaiak

Denbora gehiagoz irauteko eta denboraldiz kanpoko elikagaiak eskuragarri izateko helburuz sortu ziren kontserbako elikagaiak. Elikagaiak babesteko latak eta beira erabili dira nagusiki. Lata eta elikagaiaren arteko elkarreagin gurtzitzeko, ontziek baldintza batzuk dituzte: latorrizkoak dira kanpotik, ezta inu geruza bat ere badute eta barrualdean, berriz, plastiko edo polimero geruza bat, elikagaiarekin kontaktuan dagoena. Beirak, aldiz, elikagaiengan eragin gutxiago dauka. Badira fotosensibileak diren elikagaiak, argiarekin kontaktuan jartzean zapora eta itxura aldetik propietateak galtzen dituztenak eta hobe da horiek latetan sartzea.

Kontserban jarri aurretik elikagaiak tratamenduan jartzen dituzte produktoreek, bakterietatik babesteko. Pasterizazioarekin germen konkretu batzuk desagertaraztea lortzen da eta iraupen gutxiagoko elikagaietan erabiltzen da. Esterilizazioa, berriz, germen guztiekin akabatzeko metodori eraginkorra da. Hala ere, elikagaiak euren ezaugarri batzuk gal ditzakete, zaporea, kolorea edo biguntasuna esate baterako. Kontserbako elikagaiak sustantzia aditibioak botatzen zaizkie, elikagaiaren kontserbazioa eta ezaugarriak hobetzeko. Sustantzia kimiko




BITTOR RODRIGUEZ

Elikagaien teknologoa

“Kontserban jarri aurretik elikagaiak tratamenduan jartzen dituzte produktoreek, bakteriengatik babesteko, hain zuzen”

hauen artean ezagunena glutamato monoxidoa da, zaporea handitzeko erabiltzen dena.

Normala denez, kontserbako elikagaiak freskoek baino kalitate eta bitamina gutxiago dute. Gatz asko ere izaten dute eta hipertentsioentzat ez dira oso gomendagarriak. Etxean elikagaiak (atuna, tomatea) poteratzeko orduan *C. botulinum* izeneko bakterioa hazteko arriskua dago. Hori saihesteko elikagaiak tenperatura egokian egosi edo frijitu, kantidadegutxitan poteratua eta lehenbailehen kontsumitzea komeni da. Bestalde, kontserbako elikagaiak etiketan zehaztutako iraungitze-dataren barruan hartu behar dira, ustekaberik ez izateko.



Ia elikagai guztiak kontserban jarri daitezke. ARTXIBOA

bergarako errota

LESARRI-BOLU (eta II)

Lonako eskaera hau argitaratu zen 1929ko G.A.O.ean:

“ Claudio Artechek, Bergarako Sociedad Artech Hermanos enpresako bazkide gerenteak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Deba ibaiko urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Bergarako Lesarri errota argindarra sortzea du helburu. 2.000 litro ur jasotzen du segundoko, eta 2,25 m.ko jauzia dauka...”

Antzeko eskaera egin zuen Pedro Alberdik 1955ean.

Bestalde, 1926an eman zitzaion alta irin-errota lanak egiteko, Francisco Alberdiren izenean. 1938tik 1951ra Hermanos Alberdi Alberdi izenean egon zen.

Francisco Alberdi azken errota-riak esandakoaren arabera, beste errota baten gainean eraikia da Lesarri-Bolu.

Deba ibaiaren ezker aldean kokatua, bertako urak erabiltzen zituen bere hiru pare harriak mugitzeko.

1952an laga zion ehotze lanari.

KOKAPENA: Botatako Lesarri Mekolalden zegoen, gaur egungo Lesarri izeneko baserri eta zubia-ren ondoan.

Antxon Agirre Sorondo

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

MERKATARITZAKO JARDUNALDIAK

Bezeroarenganako arreta

Hizlaria: **Julio Garai eta Antonio Mies**



2000ko urriaren 17an eta 18an,
martitzena eta eguaztena,
14:15ean

Bergarako Kultur Etxean

Laguntzailea:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, KOMERTZIO ETA TURISMO SAILA


DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Antolatzailea:



Gotzon Arzelus, Goienako zuzendari komertziala

Gotzon Arzelus 27 urteko bergararra Goienako zuzendari komertzial berria dugu. Gotzonek Turismo ikasketak burutu zituen Donostian eta azken lau urteotan Halcon Bidaiak ajentziako bailarako bulegoetako zuzendaria izan da. Aurrerantzean, esan bezala, Debagoieneko euskara elkarteek sortutako Goiena kooperatibako arlo komertzialaz arduratuko da. Besteak beste, komunikabideen autofinantziaziorako bideak jorratu eta Goienako egitura komertziala antolatzeaz arduratuko da. Ongi etorri!!



Ispilu berria Barrenkalean

Udaletxeko brigadak **Barrenkaleko bidegurutzean** trafikoa errazteko dagoen ispilua aldatu berri du. **Artekalea itxita dagoenez**, trafikoa San Martin plazatik behera bideratu behar izan da azken asteetan eta, Barrenkaleko bidegurutzean Masterrekarako norabidea hartu behar duten gidarientzat, ispilu egokiago bat jarri da, bisibilitatea handitu eta arazorik ez egoteko. Ispilua lehengoa baino zertxobait handiago da eta inguruan marko zurigorri deigarria dauka.

Sabas Igartuari despedida afaria

San Martin ikastetxeko langileek Sabas Igartuari despedida afaria eskaini zioten eguakitzean Torrekoa erretegian. Bertan, 32 lagun bildu ziren eta azken 16 urteetan ikastetxeko kontserjea izan den Sabasi omenalditxoa egin zioten, jubilatzeako ordua heldu zaio eta. Primeran afaldu ondoren, Sabasek hainbat opari jaso zituen San Martineko langileen eta guraso elkartearen partetik. Zorionak!!



MARIAN ARRIZABALAGA

Gorosti

Loradenda

Lore eta landare aukera zabala

Lehorrak, naturalak, artifizialak eta abar

Kanposanturako lore sorta, koroa eta ontziak

Ezkontzetarako, eliza eta jatetxea apaintzeaz gain,
lore sortak egiten ditugu

Jardinak apaintzen ditugu

LASTER ZABALIK

Matxiategi 3

943 76 07 47 eta 679 31 63 72

Euskaraz bizitzeko...

27.700 euskaldun zure zerbitzura!



- 825 jarduerak
- 400 udalerrak
- 2.100 helbide elektronikoa
- EH osoko posta kodeak

Harpidetza egiteko eta Gida etxean jasotzeko, deitu telefonoz edo bidali postaz honako ebakina. Bi urtetik behin, 50 lib./ 1.000 pezetaren truke, jasoko duzu Gida etxean bidalketa gastuak barne.

ARTEZ Euskara zerbitzua • 944 480 000 • Luzarra 10-2 • 48014 Deustu (BIZKAIA)

izen-deiturak:

helbidea:

herria:

P.K

ordainketarako kontua:


/ / /

Errausketatik birziklaiara

Pertsonako kilo bat zabor sortzen da egunean



Debagoiendarrok, eta gipuzkoarrok orohar, gero eta zabor gehiago sortzen dugu egunero. Mankomunitateak dauzkan datuen arabera, kilo bat inguru hondakin sortzen dugu pertsona bakoitzak egunean. Baina, era berean, gero eta gehiago da birziklatzen den zaborra ere: beira, papera, kartoia, plastikozko eta bestelako ontziak... Urtetik urtera birziklatzen den zabor kopurua gehituz joan da, eta gaur egun, sortutakoaren %16 birziklatu egiten da.



Urdinak, berdeak eta horiak kontuan hartuta, 102 edukiontzi daude Bergaran.

Orain dela hogeitun urte arte Debagoieneko herri bakoitzak bere aldetik lan egiten zuen sortzen zen zabor guztia batu eta botatzeko. Horrela, herrietan zeuden zabortegetara botatzen ziren batutako hondakin guztiak, lurrez estali eta zegoenetan uzten ziren. Baina 1976. urtean, Debagoieneko Mankomunitatea sortu zenean, bailara guztiko zaborra gestionatzeko plan komun baten beharra ikusi zen, eta horretarako lanean hasi ziren. Halaxe sortu zen Arrasateko Akeiko errausketa plantaren proiektua. 1982. urtetik aurrera, gure eskualdeko hondakin guztiak Akeira eramane eta bertan erretzen ziren.

DEBAGOIENENKO ZABORRAK BEASAINERA BIDEAN

Duela lau urte, ordea, 1996an, errausketa planta hau itxi egin zen, atmosferako kutsadura murrizteko Europako Komunitate Kontseiluaren araudiari ja-

rraituz. Ordutik, Debagoieneko hondakin solidoak, birziklagarriak izan ezik, Beasaingo Sasieta zabortegira eramaten dira. Baina gaur egun ez dira, duela urte batzuk bezala, zaborrak estali eta bertan lagatzen besterik gabe. Izan ere, Beasaingo kasuan, hondakin organiko-

ek sortzen duten gas metanoa elektrizitatea ekoizteko aprobetxatzen da.

Mankomunitatean 5 kamioi daude hondakin solidoak jasotzeaz arduratzen direnak. Hondakin hauek guztiak, esan bezala, Beasaingo Sasieta zabortegira eramaten diren arren, lehen-

Birziklaia kilotan

2000ko urtarriletik abuztura bitarteko datuak
Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

	Kartoi-papera	Beira	Ontziak
Bergara	290.617	221.691	50.599
Antzuola	36.093	29.336	6.031
Debagoiena	1.085.530	996.634	185.280



dabizi Arrasateko Akei plantan pilatzen dira zaborrok, eta handik, trailer handiagoetan garraiatzen dira Sasetara. Egunean hiru kamioikada, hain zuzen.

BEIRA, AINTZINDARI

Hala ere, gaur egun ez da zabor guztia batera pilatu eta Beasainera eramaten. Edo hori da, behintzat, dauden edukiontzi ezberdinekin lortu nahi dena: ahalik eta material gehien birziklatzea. 1984an beira izan zen lehen pausua hondakinen birziklapenaren bidean, eta gainerako zaborretik banandu zen. Urte horretan Debagoieneko herri gehienetan jarri zen beira batzeko zerbitzua, baita Bergaran ere. Kristina Iraolagoitia Mankomunitateko Ingurugiro teknikariaren arabera, "jendea kontzientziatzen hasita zegoen. Horregatik, oso erantzun positiboa jaso zuen ekimen berri honek hasiera-hasieratik, eta, ordutik hona, berteroko memoriei begirada bat bota basterik ez dago, jasotako beira kopuruak gora egin duela ikusteko". Iaztik, esaterako, %17an igo da batutako beira kopurua gure eskualdean. Gaur egun, guztira, 149 kontainer daude Debagoiengan; Bergaran 31, eta beste

Aurten jarri dituzte bailaran ontziak jasotzeko edukiontzi horiak

bost Antzuolan. Jasotzen den beira Laudiora eramaten da: Vidrala enpresak batu eta birziklatzen du.

PAPERA ETA KARTOIA

Papera eta kartoia batzeko, berriz, 6 kontainer urdin daude Antzuolan, eta 35 Bergaran. 1992. urtean jarri zuen Mankomunitateak zerbitzu hau. Urte hartan 40 edukiontzi jarri ziren bailaran guztira. Gaur egun, berriz, 139 daude. "Beiraren bilketak arrakasta handia izan zuen; gainera, Europa aldean gero eta material gehiago berrerabili edota birziklatzen zen, eta jendeak behin eta berriro eskatzen zigen papera eta kartoia birziklatzen hasteko". Papera eta kartoia batzeaz FCC enpresa arduratzen da; papera eta kartoia ere Laudiora eramaten da, eta handik paper lantegietara birziklatua izan dadin.

Kontainer urdin hauetan, hala ere, ez da papera eta kartoia bakarrik batzen. Izan ere, kanpoaldean pilak ba-



Bergarako hondakindegia alternatiboa, San Kristobalgora, 1995.ean zabaldu zen.

tzeko kutxa txiki bat ere izaten dute, eta Recipilas enpresara eramaten dira pilok. Bertan, pilen metala aprobetxatu

eta elementu kutsagarriek tratamendua ematen zaie.

ONTZIAK, AZKEN BERRIKUNTZA

Ontziak jaso eta birziklatzeko helburuarekin, aurten jarri dituzte Debagoiengan edukiontzi horiak.

Bergaran 36 eta Antzuolan 6 jarri dira: brik-ontziak eta plastikozko eta metalzkoak batzen dira. Kristinak azaldu digunez, "ontzi hauek guztiak Legazpiko enpresa batera eramaten dira, eta, bertan, eskuz egiten da banaketa gehiena". Lan oso neketsua da eskuz,

ontzi guztiak sailkatzea, baina oraingoz, behintzat, ez dago beste erarik.

HONDAKINDEGI ALTERNATIBOAK

Betidanik egon dira herri guztietan, jendearen ohituraren eraginez zabortege bihurtu diren puntu jakin batzuk. Hori ikusita, Mankomunitateak hondakindegia alternatiboa ezarri zituen toki horiek aprobetxatuz. Hiru garbigune daude eskualdean: Oñatin, Arrasaten eta Bergaran. Bergarakoa, San Kristobalgora, 1995ean inauguratu zen. Gune horiek hesitu, atezain bat jarri eta zer egin ez dakigun hondakinak bertara botatzeko aukera eskaintzen digu zerbitzu honek. Era guztietako zaborrak botatzen dira bertara: eskonbroak, txartarra, egurra, kartoia... Gero, bakoitza dagokion tokira bideratzeaz arduratzen da Mankomunitatea.<

Atez-ateko zerbitzua

Dagoen kontainer kopurua nahikoa dirudien arren, denok ikusi dugu noizbait nola egoten diren paperez edo botailaz gainezka, eta trasteak kanpoan utzi beste erremediorik ez dugu izan. Dendetan, normala denez, paper, botaila, kartoia eta bestelako askoz gehiago sortzen da etxetan baino. Hori izaten da, kasu askotan, kontainerrak gainezka aurkitzearen arrazoia.

Mankomunitateak merkatarie eta dendariendako atez ateko zerbitzu bat martxan jarriko du laster, eta, besteak beste, aipatutako arazo hau ekiditea espero dute. Gainera, komertzioetan pilatzen den material pila banan-banan kontainerretara botatzea ez da batere eroso izaten, eta zerbitzu berezi honekin lan hori aurreztuko litzateke merkatariei.

Bergarako saskibaloi taldeak hasiera txarra eman dio ligari

Jokatutako bi partidua galdu egin dituzte seniorrek

Bergarako senior mutilen saskibaloi taldeak ez du hasiera onik izan aurtengo ligan. Zapatuan, Labegaraietan, 53-65eko emaitzarekin galdu zuen Lezoko Aierru taldearen aurka. Aldaketa asko izan dira taldean eta Alex Familiar entrenatzailearen arabera, "kategoria mantentzeko ez dugu eragozpenik izango, baina hasieran sufritzea tokatuko zaigu, ziurrenik".

Lehenbiziko jardunaldian, Oreretan, 79-58ko emaitzarekin galdu zuten mahoneroek eta zapatuan etxean jokatutako lehenbiziko partiduan ezin izan zuten Aierru taldea menderatu. Partidu amaieran Aierru 12 puntuko aldearekin nagusitu zitzaion Bergarari (53-65). Etxekoek ez zuten partidu onik jokatu. Bigarren zatia (saskibaloi partidua lau zatitan banatzen dira aurten) amaitzeko hiru minutu falta zirela, Bergara aurretik zen markagailuan, baina lezotarrek 0-10eko partziala lortu zuten eta hiru puntuko aldearekin joan ziren aldageletara. Hortik aurrera, Aierru izan zen nagusi jokoan eta 14 puntuko aldearekin ere aurreratu ziren. Laugarren eta azken zatian Bergara aldea 5 puntu murritzera ere iritsi zen, baina Alex Familiarren jokalariek ez ziren fin ibili erasoko jokaldietan eta ezin izan zuten aurkarien zonako defentsa gainditi. Azkenean,



Argazkian, senior mutilen saskibaloi taldea.

esan bezala, Bergarak ligan bigarren partidua galdu zuen.

ALDAKETA ASKO AURTEN

Bergara lehen mailako liga autonomikotik jaitzi zen joan zen denboraldian eta aurten lehen liga probintzian ari da. Aldaketa ugari izan da taldean eta Mikel Etxeberria, Iñigo Ziarsolo, Igor Urisabel, Mikel Artola, Ugutz Basauri eta Aniotz Gabilondok taldea utzi dute. Ondorioz, Bergarak talde gaztea izango du aurten, azken denboralditik bost jokalarik bakarrik jarraitzen dutelako eta gainerakoak jubenetik taldetik igo direlako.

Hirugarren urtez jarraian Alex Familiarrek segitzen du entrenatzaile lanetan. Bere hitzetan, "txapelketako lehendabiziko bi hilabeteak

gogorak egingo zaizkigu ziurrenik, sufritzea tokatuko zaigu, jokalariek kategoria berrira egokitzeko epe bat behar dutelako. Aldaketa asko izan dira taldean eta ligako lehen partiduetan ziurrenik uste baino arazo gehiago izango ditugu, esperientzia gehiagoko taldeen aurka aritu beharko baikara. Taldea gaztea daukagu, altuera eta pisu gutxiakoa, baina, hala ere, ez dut uste kategoriari eusteko arazorik izango dugunik. Maila oneko jokalariek ditugu eta txarrena da plantila nahiko motz geratu zaigula denboraldiari aurre egiteko".

Zapatuan, 18:30ean, Intxaurrendoren aurka jokatuko du Bergarak Donostian. Lehen garaipena lortzeko aukera proposa izan daiteke.

BERGARAKO PLANTILA

BASEAK

David Urbina	24 urte	1,71 m.
Iban Herzog	20 urte	1,78 m.
Mikel Larrañaga	17 urte	1,78 m.

HEGALEKOAK

Iban Igartua	18 urte	1,76 m.
Gorka Eraña	19 urte	1,89 m.
Jon Beistegi	16 urte	1,84 m.

HEGAL-PIBOTAK

Jesus Morais	20 urte	1,79 m.
Andoni Gonzalez	17 urte	1,85 m.

PIBOTAK

Gorka Lobato	18 urte	1,78 m.
Unai Iñarra	19 urte	1,90 m.
Xabi Unamuno	25 urte	1,96 m.
Iker Barbero	24 urte	1,92 m.

Entrenatzailea: Alex Familiar
Delegatua: David Bouzas
Kantxako delegatua: Jokin Perez

Gutxituei zuzendutako Dordoka kirol programa martxan

Datorren astean, Aspace erakundeak bultzatuta, gutxituei zuzendutako "Dordoka" kirol elkartearen entrenamenduak jarriko dira martxan. Aipatutako elkarte orain dela bost urte jarri zen martxan Gipuzkoa mailan eta bertan parte hartu duten 10 kirolari Sidney jokatu diren joku paraolimpikoetan izango dira.

Bergaran astelehenetik eguenera bitartean 16:30etik 18:00etara izango dira entrenamendu saioak Agorrosin eta Ipintza institutuan. Eguakitzetan, berriz, 15:00etatik 16:30era entrenatuko dira "Dordoka"ko partaideak. Slalom, boccia eta atletismo frogak egingo dira Bergaran eta Debagoieneko zein Debabarreneko



Bergaran, slalom, boccia eta atletismo saioak egingo dira.

ARTXIBOA

kirolariak etorriko dira gure herrira. Guztira, 15 bat kirolari izango dira kirol ezberdinetan arituko direnak.

Kirolari bakoitzaren zailtasunaren arabera, zortzi maila bereiztuko dira. Herriko ordezkariak hiru izango dira: Kristina Bengoa (boc-

cia kanaletarekin), Aritz Bikuña (slalom proban eta boccia eskuarekin) eta Agustin Toledo (pisu jaurtiketa eta boccia eskuarekin). Entrenamenduek ekainera arte iraungo dute eta abendutik aurrera txapelketak antolatuko dira.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Real Union

Hirugarren maila.

Eguena. 16:30. Agorrosin

Bergara-Urola

Neskak

Eguena. 18:15. Ipintza

Bergara-Aretxabaleta

2. erregionala

Eguena. 20:15. Ipintza

Bergara-Real Union

Oihorezko kadetea

Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Aretxabaleta

Bigarren mailako kadeteak

Domeka. 16:30. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Urnieta

Senior mutilak

Eguena. 12:00. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Altzatarra

Lehen mailako jubenilak

Bergara-Ikasberri

Bigarren mailako seniorrak

Bergara-Beloki

Lehen mailako seniorrak

Eguakitzean, hilak 13, 20:00etan

Udal Pilotalekuan

JON MENDIZABAL/ CDR-Solozabal taldeko txirrindularia

"Beharbada aldapan gora hobetu beharra daukat"

Jon Mendizabal CDR-Solozabal taldeko txirrindulariak (19 urte) denboraldi bikaina burutu du afizionatuen mailan. Bere lehenbiziko denboraldian, debutanteen artean, 4. postuan sailkatu da. 1,82 metroko altuera du eta 71 kg. pisatzen ditu.

G. Pozik amaitu berri den denboraldiarekin?
E. Bai, uste baino hobeto ibili naiz. Denboraldiaren hasieran nire helburua karrerak amaitu eta kategoriara egokitzea zen eta ez nuen espero Euskal Herri mailako debutanteen sailkapenean horren aurrean bukatzea.
G. Gogorra egin zaizu denboraldia? Zenbat kilometro egin dituzu?
E. 17.000 kilometro egin ditut, 35 bat lasterketa tartean, baina denboraldi bukaerara ez naiz saturatuta iritsi. Egoera onean bukatu dut denboraldia, indartsu, bizikletaz aspertzeko. Afizionatuetan korritzea oso exi-

gentea da, maila handia dago eta Euskal Herrikan kanpoko txirrindulariek ere gurekin korritzen dute. Konpetentzia izugarria da.

G. Taldean baduzue liderrik?

E. Ez. Gure ekipoan norbait ondo badabil, hari laguntzen zaio. Guztiok daukagu gure maila demostratzeko aukera, eta hori ez da talde guztietan gertatzen...

G. Taldez aldatzeko proposamenik izan duzu?

E. Beste talde baten eskaintza jaso dut baina ez zegoen alde handirik oraingo egoerarekiko eta ondo nago oraingo taldean, giro oso ona dago. Datorren urtean Igoitz Gabilondo eta Xabier Plazaola bergararrak eta Xabier Aranguren el-

getarra ere gurekin ibiliko dira.

G. Datorren urterako, zein asmo?

E. Progresatzen joatea eta zorte txarrik ez izatea, hori da nire helburua.

G. Eta zertan daukazu hobetu beharra?

E. Gure karrera denetan mendateak izaten dira tartean eta beharbada aldapan gora hobetu beharra daukat.

G. Profesionaletara iristea al da zure ametsa?

E. Oso zaila da eta ez da nire ametsa. Hobetzen joatearekin konformatzen naiz.

G. Orain oporrak...

E. Bai, sei bat aste izango ditugu. Ondoren igerian, mendian ibiltzen eta gimnasiarekin hasi beharko naiz, hurrengo denboraldia prestatzeko.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Apartamentu txikia Barrenkalea 34an. Oso txukuna eta jantzia. 656 740 165.

Zabalotegi, ganbararekin eta berriztua. 50 m². 943 76 07 01.

Bolun, jantzia. 607 455 396.

Antzuolako Ibarrodo kalean, 88 m². Jantzia eta garajearekin. 943 78 71 53.

Pisua herri erdialdean. 646 305 349 / 636 794 761.

Matxiategi. 943 76 11 01.

Barrenkalea. 656 732 026 (egunez) edo 943 35 39 91 (gauez).

EROSI

Baserría erosiko nuke Bergaran. 943 18 77 57.

Etxea erosiko nuke Bergaran. 943 76 38 25.

Herri erdialdeko lehen solairu bat edo etxabea erosiko nuke. 609 413 211

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

(20:30etik aurrera).

Apartamentu txiki baten bila nabil. 655 747 321.

ERRENTAN EMATEKO

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Etxeko logelak alokatzen ditut. 943 76 43 95.

ERRENTAN HARTZEKO

Etxea alokatu nahi dut Bergaran edo inguruan. Deitu 943 76 30 84 telefonora.

Etxea alokatu nahi nuke. 943 76 90 83.

Pisua alokairuan hartuko nuke. 678 212 657.

Etxea alokatuko nuke. Jantzia. 90.000 pta. arte ordaintzeko gertu nago. Presazkoa da. Deitu 649 790 901 telefonora.

ETXE KONPARTITUAK

Pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. 30.000 pta. 656 773 637 (Eli)/943 76 15 46 (Iñigo).

2. GARAJEAK

SALDU

Aranerreka. 943 76 24 84.

ERRENTAN EMATEKO

Burdiñate. 943 76 02 34.

Boni Laskurain. 606 217 256.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal komertziala hartuko

nuke alokairuan, 40-60 m²koa. 646 673 204.

3. LOKALAK

SALDU

Autobus geltokiaren ondoan bulegoa (58 m²). Deitu 607 344 658 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Lokala errentan Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18 m²). Oso merke. 606 962 380.

Lokala alokairuan herri erdian. 120 m². 617 025 376.

Koldo Eleizalden, behea, 50 m². 943 76 37 69.

4. LANA

ESKAITZAK

Emakume edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 06 92 (Amaia).

Garbiketak egiten lan egingo nuke. 943 76 53 18.

Arratsaldeetan umeak zainduko nituzke. 943 76 13 46.

Umeak zaintzen edo antzeko zerbaitetan lan egingo nuke. 943 76 00 90.

Tabernan, tailerrean edo dendan lan egingo lukeen 35 urteko mutila naiz. Esperientzia. Informatika ezagutzak. 610 972 250 (Antxon).

ESKAERAK

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 19 27.

Emakumea behar da

ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

LUIS ETXEBERRIA



olioak eta sorginak

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 07 89.

Emakumea behar da goizez etxeko lanak egiteko. 943 76 05 85.

Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dut. 943 76 48 76.

Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 28 05 / 33 27.

Antzuolan, pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. 943 76 61 04.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 31 72.

Ingeles klaseak ematen ditut. 649 577 059 (18:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak ematen ditut. Esperientzia. 943 76 30 28 / 659 331 741 (Ana).

Klase partikularrak ematen ditugu. 943 76 31 31 (Juanma) edo 943 76 42 08 (Nere).

Alemaniera klaseak ematen ditut. 943 76 91 33 / 93 74 (Idoia).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Opel Kadett 1.7 D (SS-AJ). 943 76 31 21.

Citroën Berlingo 2000 HDI. Otsailean erosia. Estrak. 610 384 896.

Scoter Skipper 125 motoa. Matrikulatua, ia berria. 943 76 61 05.

Seat Marbella. (SS-AF). 150.000 pta. 679 874 695.

Opel Corsa (SS-BB). 15.000 km. 943 79 27 30.

Fiat Uno (SS-AG). 105.000 km., 200.000 pta. 600 289 443.

Audi A4 berria. Deitu 943 76 02 08 telefonora.

VW Polo Diesel (SS-AX). 609 541 613.

Kawasaki Volcan 800 motoa salgai. 900.000 pta. 943 77 08 69.

Opel Corsa (SS-AM).

943 76 52 31 (gauetz).

Opel Kadett 1.6S (VI-K). Berunik gabe. Egoera ona. 200.000 pta. 619 149 730.

Kawasaki ZZR 600 motoa. Egoera ona. 667 200 768.

7. ANIMALIAK

SALDU

Hiru hilabeteko artzain txakurrak. 943 76 52 21.

Hiru urteko pointerra. 943 76 40 03.

Boxer eta cocker txakurkumeak. Pedigridunak. 696 05 73 46.

8. DENETARIK

SALDU

Bulegoko zurezko mahaia eta marrazteko mahaia eta aukia. 607 344 658.

Jangelako altzari zaharrak: bi komoda tailatu eta mahaia 6 aulkirekin. 639 779 592.

Egongelako altzaria. 2,8 m. 943 76 41 31.

Opel kotxeendako parri-

lla, 2 bizikleta eramateko. 943 76 03 75.

Adria karabana, 4 lagunendako. Oso egoera onean. 943 76 56 84.

Erremolkea. Oso merke. Deitu 943 76 12 01 telefonora.

Tronpeta berria. Deitu 943 78 70 52 telefonora.

EROSI

Bigarren eskuko saxofoi altua erosiko nuke. 943 76 29 67.

Bigarren eskuko umeendako kotxea erosiko nuke (bikiენტzat). 943 76 19 27.

Bigarren eskuko umeendako kotxea erosiko nuke (bikiენტzat). 677 367 733 (Irika).

GALDU

Poltsikoko telefonoa galdu dut, Motorola Startac. 943 76 73 41.

Lau perladun urrezko belarritakoa galdu dut. Eskertuko da. 943 76 09 33 (Maria Dolores).



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

BASOETAKO PLOIAK, 2
Enkartazioetarako. 36902/3

PRODUKZIO ARDURADUNA
Miranda de Ebro. 37412/4

GAS INSTALATZAILE LAGUNTZAILEA
Goierri. 37806/7

TRAILER GIDARIA
Bilbo. 37817/4

ASTIALDIKO BEGIRALEAK, 3
Gasteiz. 37930/2

ITURGINA
Urola Kostaldea. 37950/1

WEB ORRIALDE PROGRAMATZAILEA
Deba Garaia. 38257/5

KOMERTZIALAK, 2
Araba. 38112/1

SUKALDARIA
Urola kostaldea. 38205/2

ELEKTRIZITATE MANTENIMENDUA.
Lanbide Heziketa II Arabar lautada. 39337/2

LANBIDE HEZIKETA II. METAL ARLOA
Gasteiz. 38317/2

ALEMAN IRAKASLEA
Derio. 38687/2

KOMERTZIALA
Donostia. 38754/5

LANBIDE HEZIKETA II ELEKTRIZITATE ARLOA
Bilbo. 38834/4

TARIMA ETA ZOKALO JARTZAILEAK
Urola Kostaldea. 38933/1

BANATZAILEA
Bilbo. 39027/3

EKONOMI LIZENTZIATUA
Bilbo. 39245/1

GESTIO IRAKASLEA
Donostia. 39401/4

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejora dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Barran lan egiteko

EMAKUMEA

behar da jatetxe batean

943 76 50 99



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

AGENTEA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenerik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



IRAEGI
ASEGURUAK

“Erretiratu izatetik partaide izatera”, San Joxeperen asmoa eskultura bihurtuta

Martitzenean, eskulturarekin batera, Hamabostaldi Kulturala inauguratu zen

“Erretiratu izatetik partaide izatera” eskulturaren inaugurazioarekin ireki zuen atzo, martitzena, San Joxepe elkarteak Hamabostaldi Kulturala. Eskultura, sinbolo bat da; San Joxeperen helburu asinbolizatzen duena, hain zuzen ere.

Inaugurazio ekitaldian Maximino Goikoetxea Gizartekin-tzako Diputatua, Victoriano Gallastegi alkatea eta San Joxepe elkarteak hainbat kide izatekoak ziren.

Eskultura San Joxepeko egoitzaren atarian kokatu dute. Bertan, bikote gazte bat ageri da, aulki batean eserita dagoen agure bati zutitzeko eskua luzatzen. Egilea, Lorenzo Askasibar elgetarra da.

Eskultura egiteko ideia, herritar batek elkarteari egindako bi milioi pezetako donaziotik dator Tomasa Zabaleta elkarteak lehendakariak esandakoaren arabera.



Eskultura, San Joxeperen atarian kokatu dute.

SINBOLO BAT

Martitzenean inauguratutako eskulturak San Joxeperen ideia nagusia bil-tzen du bere baitan. Tomasa Zabale-

taren arabera, eskultura ez da “harri bat, sinbolo bat baizik, San Joxeperen helburuak sinbolizatzen dituen eskultura bat. Izan ere, elkarteak, azken urteetan, erretiratuak gizarteko partaide aktibo izateko ari da lanean. Hori da, hain zuzen ere, eskulturak jaso nahi duen ideia, eta hortik dator-kio izena: “Erretiratu izatetik partaide izatera”.

Gogoratu, 1997an San Joxepe elkarte moduan sortu zenean, asmo nagusi horrekin sortu zela. Antolatutako lehenengo kultura hamabostaldia-ren leloa ere bera zen: “Erretiratu izatetik partaide izatera”. Zabaletaren arabera, sorreratik gaur egun arte antolatu izan dituzten ekitaldi guztiak asmo horrekin antolatu dituz-te. Hori horrela izanik, “ekital-

diak eurak ez dira helburu bat, batzuek pentsa dezaketen bezala, gizartean aktiboki parte hartzera heltzeko bitartekariak baizik”.

Jon Andoni Urisabel San Joxepeko Kultura Hamabostaldia iragartzeko kartel lehiaketako irabazlea

“Galdera ikurra, mundua eta zerebroa ageri dira kartelean”

G. Lehiaketarako gai jakin baten gainean egin behar izan duzu lan?

E. Bai. Hamabostaldiko gaia globalizazioa da eta ideia hori islatu behar genuen kartelean.

G. Nola islatu duzu ideia hori?

E. Ideia asko daude kartelean, nahiz eta gero guztiak sintetizatu ditudan. Erabili du-dan ikono nagusia kartelean ikus daitekeen galdera ikurra da. Bestalde, globo esferikoe-tan erabiltzen den eja ere hartu eta biak uztartu ditut. Horrez gain, galdera ikurra eta globo esferikoaren eja mundua izango litzatekeena inguratzen dute. Mundua, hala ere, korte zerebral bat ere bada. Hiru ele-

mentu nagusi horiek bildu ditut kartelean globalizazioa adierazteko.

G. Zein teknika erabili duzu hori adierazteko?

E. Nik margotu egin izan dut beti, kartelak gutxiago jorratu ditut. Izan ere, oso ezberdina da kua-droak pintatzea eta kartelak egitea. Hala ere, kartelak egin izan ditudanean ere, pintura hartu izan dut oinarrian.

San Joxepeko kartelerako ere gauza be-
ra egin dut. Batetik akriliko erabili dut eta



hizkiak eta hainbat ikur or-denagailuz montatu ditut.

G. Kartel lehiaketa gutxitan hartu duzu parte, be-raz.

E. Bai. Izan ere, ez dut neure burua disenadore moduan ikusten. Nik beti margotu egin izan dut, eta gehiago aurkeztu naiz pin-tura lehiaketetara. Baina momentuz utzi egin diot

aurkeztuari, gogorik ez dudalako. Karrera amaitu ostean beti beka edo lehiaketen atzetik ibili beharrak nekatu egin nau.

Amestoi eta Telleriaren emanaldiak Kultur Errotarekin

Urriaren 28an hasi eta urte amaiera arte, hiru ekitaldi izango dira Bergaran Kultur Errota egitasmoaren barruan. Urriaren 28an, Durangoko Itzal antzerki taldeak saioa eskainiko du, arratsaldeko 18:30ean, Kartzela Zaharreko aisaldi gunera inguratzen diren neska-mutikoentzat.

Azaroaren 10ean Koldo Amestoi ipuin kontalariaren saioa izango da. Ezagunak dira "Hitz eta pitz", "Kondharian" edota "Maribil" Amestoiaren ikuskizunak. Azaroaren 10ean, "Ipuinak umeak lokartu eta helduak esnatzeko dira" azken lana eskainiko du. Ordua eta tokia oraindik zehazteke daude.



Arima Beltza maiatzaren 28an izan zen Pol-Polen Kultur Errotarekin.

Aurten Kultur Errotaren barruan Bergaran izango den azken emanaldia abenduaren 28an izango da. Mikel Telleria legazpiarra bere folk-rock taldearekin hurbilduko da. Emanaldia gauean izango da, baina ordua eta tokia zehaztu gabe daude.


erreseinak



Pablo Sastre
Henriren irudia
Eleberria

Denbora galduaren bila ari balitz bezala dabil Pablo Sastreren nobelako pertsonaia nagusia. Xan Henriren auzunera iritsi da adiskidearen galdet; aditua du ihesi ibili zela eztanda izan eta gero. Henri izan edo ez, dirudienez Xanek badauka berreskuratu beharreko zerbait funtsezkoa. Idazle madrildarraren bostgarren nobela da hau, eta ipuin bildumak sei kaleratu ditu. 1986tik ez zuen eleberririk argitaratzen. Hamalau urteren ostean Henriren irudiarekin dator.

- Susa. 153 orr. 1.900 pta.



Ke Rule
Blue Jungle
Reggae

1994. urtean sortu zen taldea Bilbon. Lehenengo maketako milaka disko saldu ostean, talde barruko arazoak hasi eta taldea banatu egin zen. Denbora gutxira taldea berriz eratu, eta "Roots Rock Reggae" izeneko bigarren maketa kaleratu zuen Oihuka disketxearekin. Ondoren, eta bi urteko lanaren ondorioz, "Explosion Vibes" lehenengo diskoa argitaratu zuten bilbotar hauek. Kaleratu berri duten "Blue Jungle" honetako musika, reggaeren erroetan oinarrituta dago. Hala ere, taldeak ez du XXI. mendearen atarian gaudela ahaztu. Diskoa hamar kantuk osatzen dute, eta horietako bat euskaraz dago.

- Zero records. 1.900 pta.

Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixken erakusketa Kultura Etxean

Gipuzkoako zuhaitzen eta zuhaixken herbarioa dago ikusgai Kultura Etxean domekara arte. Helburua gure lurraldean ditugun espezieak eta kanpotik ekarri direnak ezagutzera ematea da. Espezieen izena latinez, euskaraz eta gaztelaz datoz eta iruzkin labor bat dute.



Espezie bakoitzaren banaketa mapak ere badaude erakusketan.

ARRI
Industri
hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 656 78 64 84.

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Derrigorrezko. 2. Inor omentzeko ekitaldiak.
3. Gipuzkoako herria. Mailu handia. 4. Aurkari. Eako.
5. Naizen hau. Ertz. Bat. 6. Infin., akitu.
- Errepikatuz, dantza-mota. India. 7. Zerbaki bikoiti. Daude.
8. Iodoa. Trebea. Uranioa. 9. Kanabera ugari dauden esparrua. 10. Arabako mendatea. Arrazoi.

Goitik behera

1. Erdipurdiko. 2. Kontinente bat. Apirilaren hasieran.
3. Busti. Metal erakargarria. 4. Norbaiti. Aitak.
5. Herri hizkeran, eta. Idazki. 6. Musika tresna. Bizkaiko ibaia. 7. Ala. Sasoi. 8. Zeuden. Bokala. Lehenengoa eta azkenekoa. 9. Iparraldea, itxura. Adierazpide grafiko.
10. Musika tresna. Jupiterren satelitea.

Soluzioa

10. Okarina. io.
 8. Ziren. I. Az. 9. Kara. Irdi.
 6. Alboka. Lea. 7. Edo. Indar.
 Abar. 5. Ta. Izkribu.
 Ap. 3. Heze. Imana. 4. Inri.
 1. Nolanahiko. 2. Amerika.
 Goitik behera
 beradi. 10. Opakua. Zio.
 Dira. 8. I. Abila. U. 9. Kana-
 6. Aki. Kan. In. 7. Hamar.
 4. Aterio. Ear. 5. Ni. Izkri. I.
 diak. 3. Lezo. Borra.
 1. Nahitaezko. 2. Omena-
 Ezker eskun

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar




Zein auzotan daude gurutza eta paretako irudi berezi hau?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zenbat karril izango ditu Bergarako ekialdeko saihesbidea deritzonak?
 A- Lau
 B- Bi
 C- Bi, eta beste bat ibilgailu motelentzat
2. Nor da Bergarako senior mutilen saskibaloi taldeko entrenatzailea?
 A- David Urbina
 B- Alex Familiar
 C- Iker Barbero
3. Nor da San Joxepen jarritako eskulturaren egilea?
 A- Lorentxo Askasibar
 B- Lorentxo Lasagabaster
 C- Mieltxo Saralegi



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Maritxu Igartuaren** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maritxuri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
 Bonofotoa: **Artekalea eta Ramon Maria Lili**
 Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Gran Duque
 ardo beltza/gorria, brika
 99 PTA!
 Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Edurne Peñak 38 urte dauzka eta duela 11 urtetik Kiroldegiko tabernan lan egitten dau bere senarrarekin batera. Bertan dabillenetik kirolarekiko afiziñua hartu dau; hala ta be, ez ei dauka denborarik kirolik praktikatzeko.

Zer edaten dabe kirolarixek?

Danetik: freskagarrixak, edari energetikuak, lejiak...

Eta zeuk?

Neuk be danetik: ura, ardaa, zerbezia...

Kirolzalia zara?

Bai, batez be hemen lanian nabillenetik.

Zer kirol gustatzen jatzu praktikatzeko?

Tenisa, baiña nere lanorduak ez datoz ikastaruekin bat, eta ez dot praktikatzen.

Eta ikusteko?

Saskibaloia asko gustatzen jat, batez be Kiroldegixan lanian nabillenetik asko ikusten dot eta.

Tabernarixok parrandazale famia daukazue. Zeu parrandazalia zara?

Ni, behintzat, irten be ez naiz egitten; izan be, edadian aurrera samar harrapatu nau.

Udazkena gustatzen jatzu?

Negua baiño gehixago bai, baiña udako eguzkixa da gehixen gustatzen jatena.

Dietarik egitten dozu?

Ez.

Telebista, irratixa ala egunkarixa?

Egunkarixa.

Egunkarixan zer da lehenengo irakurtzen dozuna?

Azkenengo orrixa.

Kolore bat?

Urdiña, oso kolore alaixa pentsatzen jat.

Usain bat?

Mentarena.

Edurne Peña

Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Lagun ona izatia eta zintzotasuna, gezurrekin ez ibiltzia.

Nahikua diru eduki ezkerro, zer egingo ziñuke?

Orañi dauzkaten zuluak tapau, eta familixari eta biharra daukanari lagundu

Irakurtzeko ohitturarik badaukazu?

Bai, oso zalia naiz.

Zein da gehixen gustatu jatzun liburua?

Azkenaldian irakurri dittudanetik, "Los pilares de la tierra" eta "La papisa".

Gustoko idazle bat?

Ken Follet.

Beti egin nahi izan dozun zerbait, baiña oraindik egitteko daukazuna?

Denbora libre gehixago eduki eta disfrutatzia, eta bidaiatzia.

Nora egingo ziñuke bidaia bat gustora?

Toki asko gustatuko litzatake ezagutzia, baiña deskantsatzera, irla batera, Kanarietara, esaterako.

Amets bat?

Gustora ikusiko nuke mundua orokorrian hobeto doiala, zorientasun gehitxuago dagola munduan.



BIZITOIYOAK ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374-55

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Usoa Pub

☎ 943 76 38 57

Irala 1

PANA DE ROKUA

TRATEIXEAL

Asteburuetan bertako babak eta saibeskia

SALBADOR 10 **ELGETA**

Tf. 943 76 82 73

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4

943 76 50 68

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



Nesken aurkako partidua

Orain dela bi aste nesken futbol talde bateko argazkia ekarri genizuen orrialde honetara. Gogoratuko duzue, Mariaren Lagundian ikasten ziharduen neska talde batek, ikasbidaiaren alde dirua batzeko asmoz, euren kintako mutilen kontrako futbol partiduak jokatu zituzten, bata Bergaran, Agorrosinen, eta bestea Aretxabaletan. Mutilak Bergarako Lanbide Heziketa institutuan ikasten ari ziren eta takilan batutako dirua banatu zuten bi taldeen artean, mutilek ere ikasbidaia egin baitzuten urte hartan. Ez dakigu nora joango ziren bidaia egitera, baina bi partiduek ikusmin handia sortu zuten, izan ere duela 30 urte ez baitzen oso ohizkoa neskak futboleko aritzea. Neskei aurre egiteko, 22 mutil zelairatu ziren eta bikoteka, elkarri lo-

tuta, jokatu zuten. Hala ere neskak nagusitu eiziren... Goiko argazkia Aretxabaletako partiduen atarian aterata dago. Hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jabier Muguruza "Moiko", Jesus Mari Bolibar "Boli", Jabier Oregi "Panti", Juan Mari Zabaleta "Balento", Gonzalo Arrondo, Luis Mari Sotil, Juanito Alberdi, Patxi Xabier Olabarria, Pako Iturbe, Migel Angel Altuna, Julian Agirrebeña eta Luis Mari Gonzalez.

Makurtuta: Jabier Macho, Jesus Mari Mujika, Juanjo Zelaia, Ambrosio Orgaz, Jesus Mari Larrañaga, Juan Luis Ugalde, Jose Mari Alberdi, Jose Ramon Larreategi, Moises Pildain eta German Larrañaga.

Argazkia: Iruñe Iribekanzos.

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituztu, zatoz!

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

udazkena
&
negua




WHO I AM
CRACKER

Barrenkalea 35. 943 76 03 98
Irala 5. 943 76 37 41



K klave




DOCKERS KHAKIS



Mikropigmentazioa
Nabarmendu zure edertasuna
makilaje iraunkorarekin

Laser
depilazioa

eta...



AURRETIK



ONDOREN

*Egin proba.
Deitu
eta
eskatu txanda!*



Dei egizu konpromiso barik eta behar beste informazio emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA
Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA





GRUPO
Amuebladora
Mondragonesa

a eme Interiores

Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE

